

“Garaño azoka”

Beasoain eta Egillorko kontsumo taldea

Duela 5 urte krisi ekonomikoaren bueltan ginela, Egillorko zenbait lagunek proposatu zuten kontsumo taldea osatzea eta zenbait produktu elkarrekin erostea: laranjak, olioia, esnea... Ez genekien nola egin eta Janaske Zaraitzuko kontsumo taldeko kide bati deitu genion informazioa lortzeko; hark animatu gintuen taldea sortzera. Hasieran zalantza asko genituen: produktuak nola lortu, ordainketak nola egin, jendearen inplikazioa... Beraz, poliki eta produktu gutxirekin hastea erabaki genuen: laranjak, gaztak... Orain, bost urte pasa eta gero gure saskian produktu asko ditugu: laranjak, gaztak, ardoa, garagardoa, sagardoa, arrautzak, olioia, mandarinak, intxaurrak, kiwiak, haragia, arraina, esnea, irina, arroza, ezti, gereziak, babarrunak, Kubako rona, kafea eta azukrea... Produktu horietako gehienak ekologikoak dira, eta bertakoak, edo bidezko merkataritzakoak.

Garaño Azokaren funtzionamendua erraza da, pertsona bakoitzak produktu baten kargu hartzen du, normalean

whastapp taldean galdetzen du ea nork nahi duen (laranjak, esate baterako) ondoren jendearen eskaerak bildu eta pedidoa egiten dio produktoreari.



Ondorengo egunetan laranjak herrira heldu eta elkartearen uzten dituzte. Bertatik bakoitzak bere kiloak hartuko ditu. Eta horrela hurrengo arte. Produktu batzuk sistematizaturik daude eta astean behin edo hamabostean behin heltzen dira, beste batzuk, berriz, eskaeraren arabera. Ordainketa egiteko, produktuaren arduradunak ordaindu behar dio produktoreari eta web orrian dagoen kalkulu orri batean apuntatuko da zer ordaindu duen eta zer zor dion bakoitzak, hilabetearen bukaeran bileratxo batean kontuak kitatu egiten ditugu.

Aipatzekoa da dagoeneko

Beasoain eta Egillorko 20 familia edo etxe gaudela kontsumo taldean eta 5 urte hauetan ez dela arazo handirik izan funtzionamenduan. Batetik, lan gutxi eginda bazkideok kalitatezko produktuak lortzen ditugu prezio egokian; bestalde, bertako produktu ekologikoak kontsumitzen ditugu eta bertako ekoizleei laguntza ematen diegu.

Horretaz gain, kontsumo taldea izatea oso baliagarria da auzokideen artean konfiantzazko sarea ehuntzeko, lankidetzeta eta elkarlana bultzatzeko. Lerro hauen bidez animatu nahi zaituztet zuen herrian ere antzeko taldeak sortzeko eta bultzatzeko. Eta -behar izanez gero- gu prest gaude informazioa eta laguntza emateko

Informazio gehiagorako:
<http://gara-zoka.blogspot.com.es/>

Karlos Delás Aizkorbe

Garaño azokako kidea

karlosdelas@gmail.com

